

Euskal AEn osasunean biztanleko 3.650 euro gastatu dira 2021ean, 2020an baino % 8,5 gehiago

Osasunean egiten den gastu arrunta BPGren gainean % 10,2koa izan da 2021ean, eta ehuneko 1,4 puntu areagotu da 2018tik

Euskal AEn osasunean egiten den gastu arrunta 7.994 milioi eurokoa izan da 2021ean, eta, biztanleko, 3.650 eurokoa izan da, Eustaten datuen arabera. Datu horiek eta beste batzuk Osasun Kontuen Sisteman argitaratutako ELGAren metodologiaren arabera kalkulatu dira (System of Health Accounts-SHA 2011). Gastuaren bolumen hori urtean sortutako BPGren % 10,2 izan da.

Osasuneko gastuak osasunerako zerbitzu eta ondasunen azken kontsumoa neurtzen du; alegia, edozein agente finantzatzailek eginiko gastu arrunta. Gastu horren finantzaketak administrazio publiko guztiak, derrigorrezko osasun-aseguruak, borondatezko osasun-aseguruak eta etxeen zuzeneko ordainketa barne hartzen ditu.

2018tik, balio absolutuko gastu arrunt osoa % 5,9ko urteko batez besteko tasa metatzailera arte hazi da; zehazki, 2019an % 5,0 hazi zen, 2020an % 4,6 eta 2021ean % 8,2. BPGren ehunekoan, 2018ko % 8,8tik 2021eko % 10,2ra igaro da.

Aldi berean, biztanleko gastua 3.650 eurokoa izan da; alegia, 2020an baino % 8,5 gehiago.

Euskal AEko Osasunaren Kontuaren datu eta adierazle nagusiak. 2018-2021

	2018	2019	2020	2021(p)	Aldakuntza-tasa (%)	
					2021(p)/2020	2021 (p)/2018 urteko batez besteko metatua
GASTU ARRUNTA GUZTIRA (mila eurotan)	6.728.636	7.065.026	7.389.796	7.993.583	8,2	5,9
Herri Administrazioak/ Derrigorrezko aseguruak	4.611.115	4.868.220	5.179.651	5.572.770	7,6	6,5
Borondatezko sistemak/Etxeko ordainketa zuzena	2.117.521	2.196.806	2.210.145	2.420.813	9,5	4,6
Biztanleko gastua (euro)	3.081	3.220	3.364	3.650	8,5	5,8
Gastu arrunta/BPG (%)	8,8	8,9	10,3	10,2	-0,04 (*)	1,4 (*)
HIHAAen osasun-gastua/HHAAen guztizko gastua (%)	16,2	16,2	16,0	:	:	:

(p)behin-behinekoa

(*)aldea portzentajeazko puntutan

Data 2022ko Urriaren 31a

Iturria: Eustat. Osasunaren Kontua

Finantzaketa mota kontuan hartuta, 2021ean gastu arrunta 7.994 milioi eurokoa izan da, eta, haietatik, 5.573 milioi euro izan dira Administrazio publikoenak eta Derrigorrezko ordainketako aseguruak, eta 2.421 milioi euro Borondatezko ordainketako osasun-aseguruak eta Etxeen zuzeneko ordainketarenak. Bigarren talde horren finantzaketa izan da gehien hazi dena, % 9,5, eta, administrazio publikoen kasuan, % 7,6. 2020an, COVID-19ak inpaktu handiena izan zuen urtean, administrazio publikoen ekarpena ekarpen pribatuaren gainetik hazi zen; azken hori % 0,6 baino ez zen hazi, nagusiki Etxeen zuzeneko ordainketan murrizketa bat egon zelako, eta administrazio publikoen hazkundera, berriz, % 6,4koa izan zen.

Euskal AEko Osasunaren Kontuaren datuen analisi xehatuago batek erakusten du **funtzioen arabera** **gastuaren** banaketan, gehien hazi dena Osasun-asistentzia sendagarria dela (% 10,6) eta hura dela pisu handiena duena, 2021ean gastu arruntaren % 57,3ra iritsi baita. Garrantzian bigarren funtzioa Produktu medikoena da (farmazia-produktuak, material sanitarioa eta terapeutikoa), gastu arruntaren % 16,3rekin, eta 2021ean gehikuntza neurritsuagoarekin (% 4,2). Hirugarrenik, egonaldi luzeko osasun-asistentziaren gastua (mendekotasuna duten pertsonen osasun-arreta ematera bideratutako gastua barne) gastu arruntaren % 15,0 izan da eta, nahiz eta 2021ean % 3,1 hazi den, haren pisua murriztu egin da; izan ere, 2018an % 16,5ekoa izatetik 2021ean % 15,0ekoa izatera igaro da, 2020an hazkunde txikiena izan zuen funtzioetako bat izan baitzen.

Euskal AEko osasun gastua funtzioen arabera (milaka euro). 2018-2021

	2018	2019	2020	2021(p)	osasun-gastu osoaren %		Urteko aldakuntza-tasa (%)	
					2018	2021(p)	2020/2019	2021(p)/2020
FUNTZIOA								
-HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	3.721.741	3.977.123	4.137.931	4.576.863	55,3	57,3	4,0	10,6
-HC.2 Birgaltzeko osasun-laguntza	130.326	136.631	135.836	150.237	1,9	1,9	-0,6	10,6
-HC.3 Iraupen luzeko osasun-asistentzia	1.109.299	1.146.354	1.160.132	1.196.510	16,5	15,0	1,2	3,1
-HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	328.452	342.407	390.283	430.798	4,9	5,4	14,0	10,4
-HC.5 Produktu medikoak (funtzioen-erabilera izan barik)	1.148.567	1.166.527	1.253.000	1.305.007	17,1	16,3	7,4	4,2
-HC.6 Aurrea hartzeko zerbitzuak	93.809	94.011	97.972	96.941	1,4	1,2	4,2	-1,1
-HC.7 Gobernantza eta osasun-sistemaren eta osasun-finantzaketaren administrazioa	196.442	201.973	214.642	237.227	2,9	3,0	6,3	10,5
OSASUNEKO GASTUA, GUZTIRA	6.728.636	7.065.026	7.389.796	7.993.583	100,0	100,0	4,6	8,2


(p)behin-behinekoa

Data 2022ko Urriaren 31a

Iturria: Eustat. Osasunaren Kontua

2020an, COVID-19a hasi zen urtean, gehien hazi ziren funtzioak Osasun-zerbitzu osagarriak (analisi klinikoaren gastua barne) izan ziren, % 14,0 hazkundea izan baitzuten, bai eta Produktu medikoak ere, % 7,4 hazi baitziren. Gastua murriztu zuen funtzio bakarra Errehabilitazioko osasun-asistentzia izan zen, % 0,6 egin baitzuten behera.

Osasun gastu arruntaren banaketa hornitzaileen arabera 2021 (p)




(P) behin-behinekoa

Iturria: Eustat, Osasunaren kontua

Hornitzaileen araberako gastu-egitura aurreko aldietakoaren antzekoa da; gastuaren zatirik handiena (% 41,6) ospitaleetan egin da, eta hazkunde handia izan du bai 2021ean (% 8,8) bai 2020an (% 7,6). Bigarren postuan, osasun-laguntza anbulatorioaren hornitzaileak daude, gastuaren % 22,7 kudeatu baitute, eta % 12,4 egin du gora, 2020arekin alderatuta; hazkunde esanguratsu hori gertatu da 2020an COVID-19ak eragindako egoeragatik % 1,5eko beherakadaren ondorioz. Hirugarrenik, Txikizkariak eta produktu medikoen hornitzaileak daude, gastu arruntaren % 16,3 izan baitira eta % 4,2ko hazkundea izan baitute 2021ean. Egonaldi luzeko egoitza-establezimenduen gastua gastu arruntaren % 10,3koa izan da. Gainerako gastua (% 9,1a) dagokie zerbitzu osagarrien hornitzaileei (osasun-garraioa, laborategiak), prebentzio-zerbitzuen hornitzaileei, osasun-sistemaren administrazioari eta ekonomiaren gainerako arloei; azkenak barnean hartzen ditu familia-etxeak etxeko osasun-arretaren hornitzaile gisa.

Biztanleko osasun gastu osoa Erosteko ahalmenaren parekotasunean (\$ EAP)



Iturria: Eustat. Osasunaren kontua eta OECD. Health Statistics

Nazioarteko konparazioari dagokionez, ELGAk argitaratu dituen azken datuak, herrialde guztiei dagozkienak, 2020koak dira. **Konparaziorako** adierazle nagusiak honako hauek dira: **gastua BPGren ehunekoan eta biztanleko osasuneko gastua EAPn (\$).** **2020an, Euskal AE ELGAko batezbestekoaren gainerik dago bi adierazleetan.**

Euskal AEko osasun-gastu arrunta BPGren % 10,3 izan zen, ELGAren batezbestekoa (% 9,7) baino 0,6 puntu altuagoa. Hobe da **per capita osasun-gastua EAPn (\$), 4.929** izan baitzen Euskal AEn, ELGAko batezbestekoaren gainerik, eta, besteak beste, Finlandiaren gainerik (4.566). Beste aldean, urrun, besteak beste, Suitza (7.179), Alemania (6.936) eta Norvegia (6.536) herrialdeetatik, den-denak taularen goiko muturrean baitaude. Adierazle hori ELGAren batezbestekotik gora dago 2003tik.

Gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2020

	BPGren gaineko Herri administrazioen gastua	Osasun gastu arruntaren gaineko Herri administrazioen gastua	Administrazio publikoen gastua % Administrazio publikoen gastua guztira (1)	BPGren gaineko Osasun gastu arrunta	Gastu arrunta biztanleko (PPC, US\$)	Biztanleko BPG (EAP, US \$)
OCDE 38	:	76,3	15,4	9,7	4.272	:
Alemania	10,9	85,1	20,1	12,8	6.939	54.845
Austria	8,8	76,5	16,2	11,5	5.883	55.686
Belgika	8,5	78,7	15,7	10,8	5.274	53.096
Kanada	9,7	75,0	18,6	12,9	5.828	46.572
Danimarka	8,9	84,9	16,8	10,5	5.694	60.230
Espainia	7,8	73,3	15,3	10,7	3.718	37.755
Estatu Batuak	15,9	84,8	22,3	18,8	11.859	63.028
Finlandia	7,5	79,1	13,8	9,5	4.566	50.937
Frantzia	10,3	84,7	15,4	12,2	5.468	46.858
Irlanda	5,6	78,8	20,3	7,1	5.373	93.356
Islandia	7,9	83,3	16,3	9,5	4.620	53.617
Italia	7,3	76,1	13,2	9,6	3.747	41.995
Norvegia	9,8	86,0	17,5	11,3	6.536	62.645
Erresuma Batua	9,9	82,8	19,7	12,0	5.019	46.527
Suedia	9,9	85,9	18,8	11,5	5.757	55.065
Suitza	8,2	69,7	11,1	11,8	7.179	71.732
Euskal AE	7,2	70,1	16,0	10,3	4.929	47.912

EAP: Eros Ahalmenaren Parektasuna

(1) Health at a Glance 2021, Eskuragarri dauden azken datuak 2019koak dira

Data 2022ko Urriaren 31a

Iturria: Eustat, Osasunaren Kontua eta OCDE Health Statistics 2022

Administrazio publikoen ahaleginaren adierazlea, hau da, osasunean egindako gastua Euskal AEko administrazio publikoen guztizko gastuarekin alderatuta, % 16,0koa izan zen 2020an. Adierazle horrekiko nazioarteko konparazioa egin ahal izateko azken datuak 2019koak dira; urte horretan ELGaren batezbestekoa % 15,4 izan zen, Euskal AEn izan zen % 16,0aren azpitik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62